

## Setien gotzaia

*El Mundo del País Vasco*, 1991-12-06.

Jose Maria Setien gotzaia aspaldidanik ezaguna dugu, eta orain PSOE-PSE-koen ahotan ibili eta gero ez da hemen ezer aldatu: gotzai euskaldunak lehengoan jarraitzen du, PSOEren XIX.go antiklerikalismoak ere bai. Donostiako gotzaiak bakeaz beti gauza bera errepikatu du: "soluzio bezala, ez duela indarkeriaren aurkako indarkeriarik onartzen"; Euskal Herriak dion gauza bera, eta Aita Sainduak berriki onartu duena; beraz, gizon eta apaiz bezala ongi lekutua dagoela erakutsi du gotzai euskaldunak. Gaur gure herriak exigitu dezaiokena zera da: euskal Elizbarrutia defendatzea, eta hara herritasunari dagokion arazo hau nola dagoen: 1. Espainiako Elizbarrutiak 1978ko demokrazia herriaren giroan onartu zuen Iruñeako Elizbarrutia berregituratzea. 2. Erabakiari dagokionez Egoitza Sainduak aukeratuko zuela garaia. 3. Bitartean, Iruñea-Tudelako, Bilbo, Donostia eta Gasteizko elizbarrutiek elkartzen zituen Idazkaritza bat sortu zuten, elkarrekiko betebeharrak pastoralgoari aurre emateko. 4. Hego-Euskalerriko lau elizbarrutiei oraindik lotuta zeuden Calahorra-Logroño, Burgos eta Zaragozako diozesiek ere onartu zuten hau, eta orain elkarrekin joan dira Erromara eskakizuna hura gogaraztera. 5. Egia da auzia ez dutela Aita Sainduarekin zuzenean mintzatu, baina Bilbo, Donostia eta Gasteizko gotzaiak bereziki honetarako bildu dira Gantín kardinalarekin Aita Sainduari, Idazkaritza luzearen esperientzia jasotzen duen liburuxka argitaratu berria eskuratu diote zuzenki; eta Juan Paulo II.ak "aditasun handi"z entzun omen diete gotzaiei hitzez eginiko laburpena. Harrera honen jarraipena da Euskal Herriari gaur inporta zaiona, eta ez PSOEko betikoek geure herritasunaren usainari dien keria zaharra.